

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000003306

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_ERA_0077**Xedea**

2023ko Mareak jaialdia antolatzeko zuzeneko dirulaguntza bideratzeko, MB 2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkatetzagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023. urterako Aurrekontuan, herriaren izenaren zabalkunderako proiektu estrategikoak garatzeko dirulaguntza partida jasotzen da eta, dirulaguntza lerro horren barruan, Mareak jaialdia antolatze

Bigarrena: 2023ko maiatzaren 11n, Idazkaritza saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 10ean, udal kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c) eta 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua f) eta s) atalen arabera, alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Halan da be, 2023ko ekainaren 29an emondako 3.099 Alkatetza Dekretuz oporraldietarako Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak berrantolatzea erabaki zan eta, horren arabera, erabakia hartzeko ahalmena alkateak berreskuratu dau.

Erabakia

Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dot:

LEHENENGOA: 2023ko Mareak jaialdia antolatzeko zuzeneko dirulaguntza bideratzeko, MB 2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkatetaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Kultura Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000D35E400M8F9O1M3I5L0

Sinadurea eta data

XABIER ORTUZAR BUTRON-ALKATEORDEA - 11/08/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/08/2023
11:52:26

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0077

Data: 10/05/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

